

## ARTEA/ ARTE (Jazmina Reza)

IBON *hizketan sartzen da.*

IBON: Dramatikoa da benetan, konpondu ezinezko arazoa: mundu guztiak agertu nahi du ezkontzaren gonbidapen-txartelean. Kattalinek izugarri maite du bere amaordea eta gonbidapen- txartelean azaltzea nahi du, horixe nahi duela, eta gainera amaordeak ez du onartzen ez agertzea aitaren ondoan, eta normala da, ama hilda baitago.

Nik, berriz, gorroto dut nire aitaren emazte berria eta ez dut haren izena jarri nahi gonbidapen-txartelean. Bainak nire aitak ez du agertu nahi bere emaztea agertzen ez bada; prest dago bere izena bakarrik azaltzeko baldin eta Kattalinen amaordearen izenik jartzen ez badugu. Bainak hori ezinezkoa da.

Orduan, nik proposatu dut senideen izenik ez jartzea, azken batean hogei urte ere ez ditugu, nahikoak gara gu biok gure ezkontzaren berri eman eta jendea gonbidatzeko. Kattalin histeriko jarri da, eta esan du hori sekulako masailekoa dela bere gurasoentzat, ure- prezioan ordaindu behar baitute eztei-festa; eta batez ere bere amaordearentzat, bizitza osoan zaindu duelako Kattalin, nahiz ez izan bere alaba. Azkenean amore eman dut, nire borondatearen kontra erabat, neka-neka eginda, onartu dut nire aitaren emazte berria, nazkante hori, gonbidapen-txartelean agertzea.

Amari deitu diot kontatzeko. «Ama, gogotik saiatu naiz egoera honetara ez iristeko, baina ez dago beste konponbiderik: Maria Luisa gonbidapen-txartelean agertuko da.» *Maria Luisa agertzen bada, nik ez dut azaldu nahi.* «Ama, mesedes, ez lardaskatu gehiago gauzak.» *Nola ausartzen zara proposamen hori egitera? Zer nahi duzu, nire izena noraezean agertzea paperean, bakar-bakarrik, emakume abandonatua banintz bezala, eta nire izenaren gainean Maria Luisarena eta zure aitarena elkarri estu lotuta?* «Ama, lagun batzuk zain dauzkat. Utzi egin behar zaitut; hitz egingo dugu bihar lasaiago.» *Eta zergatik izan behar dut nik beti azken tximua?* «Baina zer diozu, ama, zu ez zara azken tximua.» *Horixe naizela. Gauzak gehiago ez lardaskatzeko esaten didazunean esan nahi duzu dena eginda dagoela, dena erabakita duzuela niri ezer galdetu gabe, nire ezkutuan antolatu duzue dena, Mertxe eraman onekoak men egin behar dio guztiari. Eta, gainera, oraindik ez dut ulertzen zer dela-eta daukazuen halako presa ezkontzeko.* «Ama, lagunak zain dauzkat.» *Bai, bai, zuk beti daukazu zeregin hoberen bat. Dena ni baino askoz garrantzitsuagoa da. Agur.* Eta eskegi egin du.

---

IVÁN *entra hablando.*

IVÁN: Superdramático, problema insoluble, dramático, las dos consuegras quieren figurar en la participación de boda. Catalina adora a su madrastra, que casi la ha criado, quiere que conste en la participación, lo quiere, pero la madrastra no concibe, y es normal, la madre murió, no figurar al lado del padre, yo odio a mi madrastra y no la quiero incluir en la participación, pero mi padre no quiere estar si ella no está, a menos que la madrastra de Catalina no esté tampoco, cosa absolutamente imposible, he sugerido que no figure ningún pariente, al fin y al cabo ya no tenemos veinte años, podemos comunicar nuestro enlace e invitar a la gente los dos solitos, Catalina se puso histérica, argumentando que eso era una bofetada para sus padres, que pagaban a precio de oro la recepción, y de manera especial para su madrastra, que se había sacrificado tanto por ella aun sin ser su hija, terminé por dejarme convencer, totalmente en contra de mi voluntad, por agotamiento, acepto, pues, que mi madrastra, a la que odio, es una cerda, figure en la participación, llamo a mi madre por teléfono para decírselo, le digo mamá, lo he intentado todo para evitar esta situación pero no hay otra manera de resolverlo, María Luisa debe figurar en la participación, si María Luisa figura en la participación, me contesta mi madre, yo no quiero estar, le digo mamá, te lo suplico no empeores más las cosas, y ella me dice cómo te atreves a proponerme que mi nombre navegue a la deriva, en solitario, sobre el papel, como el de una mujer abandonada, debajo del de María Luisa sólidamente amarrado al patronímico de tu padre, yo le digo mamá, unos amigos me están esperando, voy a colgar, ya hablaremos de todo esto mañana con más tranquilidad, ella me dice y por qué siempre tengo que ser yo el último mono, pero qué dices, mamá, tú no eres la última mona, claro que sí, cuando me dices que no empeore más las cosas quiere decir claramente que las cosas ya son, que todo se ha organizado sin consultarme, todo se trama a mis espaldas, la abnegada Mercedes tiene que decir siempre amén a todo y además, me dice ella —la guinda—, por un acontecimiento del que todavía no entiendo la urgencia, mamá, unos amigos me esperan, sí, sí, siempre tienes algo mejor que hacer, todo es más importante que yo, adiós, y cuelga.